

Liburuaren Eguneko ekitaldiak

Erredakzioa

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da gaur, eta ohiko moduan hainbat ekitaldi izango dira irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz antolatuak.

Tolosan, esaterako, Udalak Galtzaundirekin batera antolatutako Irakurri, gozatu eta oparitu proiektua martxan jarriko dute gaur. Maileguan liburu hartu eta bueltatzerakoan txartela jasoko dute erabiltzaileek Elkar megadendan %25eko beherapenez gozatu ahal izateko. Haur Liburutegian, bestalde, liburu mailegu bakoitzeko piruleta bana jasoko dute irakurleek, eta helduenean, liburuak maileguan eramaten dituzten irakurleek liburu zozketa batean hartuko dute parte.

Bestalde, Abaltzisketan, Idoia Sanchezek ipuinak kontatuko dizkie hurrei, 17:15ean, liburutegian, eta ondoren, 18:30ean Amezketa liburutegian izango da ipuin kontalaria.

Anoetan, 15:15ean ipuin kontaketa izango da HH2 eta LH2 maila bitartekoentzat. Kontukantoi kontalariek Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil abeslariak ipuin sorta kontatuko dute. Eta ondoren, 16:15 aldera, Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketako sari banaketa egingo dute, eta kategoria bakoitzeko lehenengoek euren ipuina irakurriko dute.